

## KOMUNIKAZIO KANALAK

Hasteko web orri bat sortuko dugu, han gure **zerbitzuen eta proiektuaren inguruko xehetasunak eta informazioa eskainiko** dugu. Hori egiteko, **programatzaile bat kontratatu** beharko dugu, hasieran, web orria sortzen duenak eta geroago sortu ahal diren arazoak konponduko dituenak. Beste aldetik **gaur egungo gizartean sare sozialek eragin handia** dutenez, hauek erabiliko ditugu gure proiektua ezagutzera emateko (Instagram, Tiktok eta Facebook). Guk, enpresaren sortzaileak, **kontu bat sortuko dugu proiektuari Instagramen, tiktoken eta Facebooken;** eta gure sare sozialeko kontu pertsonaleekin spam-a egingo diogu kontu horri. Beste aldetik, hasieran, aurkezpen moduko bideo bat argitaratuko dugu eta horretarako, **modeloak eta filmakerrak kontratatu** beharko ditugu. Bideo horiek ahalik eta jende gehiena ikusteko, promozionatuko ditugu (diru kantitate bat ordainduko diogu bideoa igoko duen erabiltzaile horri eta horren truke haiek gure bideoak jende gehiagori erakutsiko dizkiote).

Gure zentroan lan egiten duten profesionalak haien sare sozialetan promozioa egingo dute, eta garrantzia handiko pertsonak direnez, eragin handia izatea espero dugu.

